



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Estalduren laburpen hau UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO-EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK AXA Seguros Generales, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros enpresarekin sinatutako nahita eragindako istripuen poliza kolektiboaren baldintza orokorren, partikularren eta berezien mende dago.

POLIZA - ESPAINIA

- Espainian mugarik gabeko asistentzia sanitarioa ematea gaixotasunagatik edo istripuagatik, konpainiak itundutako zentroetan, gastu medikoak eta ospitalizaziokoak barne.
 - Zentro sanitarioa edo medikua askatasunez aukeratuz gero, gehienez 1.900 €-ko gastuak ordainduko dira.
 - Gastu farmazeutikoak itzultzea.
 - Gaixotasunagatik edo istripuagatik garraio sanitarioa, baita gorpuzkiak jatorrizko herrialdera edo ohiko bizilekua duten herrialdera garraiatzea ere (aberriratzea).
 - Senide baten lekualdatze gastuak, gaixotasunagatik edo istripuagatik asegurduna 5 egunez baino gehiagoz ospitalean egon behar bada.
 - Senide horren egonaldi gastuak, eguneko 100 €-ra arte, aseguratua gaixotasunagatik edo istripuagatik ospitaleratu den egunetik, asegurdunaren ospitalizazioa 5 egunetik gorakoa bada.
 - Larrialdiko odontologia gastuak, 300 €-ra artekoak.
 - Bigarren mailarainoko odol ahaidetasunezko senideren bat hil edo larriki gaixotu eta ospitaleratu behar bada, asegurduna bizi den herrialdera itzultzeko bidaia gastuak.
 - Interprete zerbitzua, gaixotasunik edo istripurik izanez gero.
 - Erantzukizun zibil pribatua, 100.000 €-ra artekoa.
 - Bidaia asistentziarako defentsa juridikoaren bermea, barne hartuta asistentzia juridikoa, fidantza eta gastu prozesalekin, hirugarrenek eragindako kalte pertsonalen erreklamazioa eta defentsa penala, gutxieneke 25.000 €-ko mugarekin.
 - Eskolak galtzea 20 egunez jarraian, istripu baten ondorioz: Klase partikularretarako laguntza, gehienez 1.200 €-koa.
 - Istripuak eragindako ezintasun iraunkor absolutua eta osoa, baliaezintasun handia barne: 16.000 €-ko gutxieneke kalte ordaina bermatuko da.
 - Istripuak eragindako ezintasun iraunkor partziala: proposatzen den baremoaren arabera, 16.000 €-tan oinarrituta.
 - Istripuak eragindako heriotza: gutxienez 16.000 €-ko kalte ordaina bermatuko da.
 - Aukerako kontratazioa, erantzukizun zibileko kapital bermatuak 500.000 €-ra handitzeko.
 - Polizaren helmuga SCHENGEN eremuko herrialderen bat bada, Espainia barne, estaldurak barne hartuko du asegurdunaren edozein aisia bidaia, gehienez 5 egunekoa, Schengen lurraldeko beste edozein herrialdetara.
-



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



POLIZA - ATZERRIA

- Gastuak itzultzea, gaixotasun eta/edo istripuagatikoak, medikoak, kirurgikoak, farmazeutikoak eta/edo ospitalizaziokoak, betiere aseguru etxeak justifikatu eta baimendu baditu: gehienez, 200.000 €.
 - Gaixotasunagatiko edo istripuagatiko garraio sanitarioa, eta gorpuzkiak Espainiara garraiatzea, Espainiako nazionalitatea duten ikasleen kasuan, edo haien jatorrizko herrialdeetara, ikasle atzerritarrei dagokienez (aberriratzea).
 - Senide baten lekualdatze gastuak, gaixotasunagatik edo istripuagatik aseguruduna 5 egunez baino gehiagoz ospitalean egon behar bada.
 - Senide horren egonaldi gastuak, eguneko 100 €-ra arte, aseguraturua gaixotasunagatik edo istripuagatik ospitaleratu den egunetik, asegurudunaren ospitalizazioa 5 egunetik gorakoa bada.
 - Larrialdiko odontologia gastuak atzerrian, gehienez 300 €-koak.
 - Bidaia egin den herrialdean ez dauden sendagaiak presaz bidaltzea.
 - Bigarren mailarainoko odol ahaidetasunezko senideren bat hil edo larriki gaixotu eta ospitaleratu behar bada, aseguruduna bizi den herrialdera itzultzeko bidaia gastuak.
 - Interprete zerbitzua, gaixotasunik edo istripurik izanez gero.
 - Erantzukizun zibil pribatua, 100.000 €-ra artekoa.
 - Bidaia asistentziarako atzerriko defentsa juridikoaren bermea, barne hartuta asistentzia juridikoa, fidantza eta gastu prozesalekin, hirugarrenek eragindako kalte pertsonalen erreklamazioa eta defentsa penala, gutxienez 25.000 €-ko mugarekin.
 - Polizaren helmuga SCHENGEN eremuko herrialderen bat bada, Espainia barne, estaldurak barne hartuko du asegurudunaren edozein aisia bidaia, gehienez 5 egunekoa, Schengen lurraldeko beste edozein herrialdeetara.
 - Aukerako kontratazioa, kapital bermatuak handitzeko:
 - Gaixotasun eta/edo istripuagatiko gastu medikoak, kirurgikoak, farmazeutikoak eta/edo ospitalizaziokoak, betiere aseguru etxeak justifikatu eta baimendu baditu, 500.000 €-an.
 - Erantzukizun zibil pribatua, 500.000 €-koa.
-



ESTALDURARIK GABEKOAK

- Poliza baino lehenagoko istripuak edo gaixotasunak. (Atzerriko bidaia asistentziaren bermeari aplikatu ezin zaion salbuespena, larrialditzat jotzen badira).
- Asegurudunak nahita eragindako edozein istripu edo gaixotasun, suizidioa, norberak eragindako lesioak eta miokardio infartua. (Atzerriko bidaia asistentziaren bermeari aplikatu ezin zaion salbuespena, larrialditzat jotzen badira).
- Edozein kiroleko profesional gisa jardutea.
- Gerra, aitortua edo ez, istilu zibilak, matxinadak, bahiketa, gerra legea edo berrogeialdia eta horien aldarrikapena, Partzuergoaren estaldurari kalterik egin gabe.
- Lurrikarak, uholdeak, sumendi erupzioak edo urakanak (Partzuergoaren estaldurari kalterik egin gabe).
- Erradiazioak edo energia nuklearraren ondorioak.

Bidaia estalduretarako, aurrekoez gain:

- Aseguru etxeari aldezturik jakinarazi ez zaizkion prestazioak eta haren adostasuna lortu ez dutenak, behar bezala egiaztatutako ezintasun materialeko kasuetan izan ezik.
- Bidaia xedea tratamendu medikoa jasotzea denean, salbu eta asegurdunak edo haren kausadunek behar bezala egiaztatzen badute gaixotasunak, istripuek edo heriotzak, hala badagokio, ez dutela inolako loturarik bidaia xede den tratamendu medikoarekin.
- Haurdunaldiaren diagnostikoa, jarraipena eta tratamendua, haurdunaldia borondatez etetea edo erditzea.
- Pertsonak erreskatatzea mendian, leizeetan, itsasoan edo basamortuan.
- Tratamendu odontologikoak, oftalmologikoak eta otorrinolaringologikoak, larrialdikoak izan ezik.
- Beste edozein salbuespen, betiere kontratuaren funtsaren aurkakoa ez bada.



Por la Compañía,

